

# PROBA ESPEZIFIKOA

2012ko PROBA

**ENPRESAREN  
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**ENPRESAREN  
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**ECONOMÍA DE LA  
EMPRESA**

---

## AZALPENAK

### **Iraupena: ordubete.**

Hona hemen azterketaren atalak eta atal bakoitzaren balioa:

- **2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak.** Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balio du.
- **2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak.** Atal honetan, 3 problema aurkeztuko dira. Ikasleak 2 hautatu behar ditu, eta egin. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balio du.
- **TEST MODUKO 10 GALDERA,** hiru edo lau erantzun dituztenak aukeran eta bakarra zuzena; guztira **3 puntu** balio dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balio du; okerreko erantzun bakoitzarengatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango. Atal honetako erantzunen batura osoa ez da inoiz negatiboa izango.
  
- **Galdera teorikoetan eta problemetan, atal bakoitzari dagokion balioa eta zuzentzeko irizpideak** letra etzanez ageri dira letra-tamaina txikiagoan.



## **GALDERA TEORIKOAK**

1. Esan ezazu zein diren ekitaldi ekonomiko bakoitzean enpresek aurkeztu behar dituzten urteko kontu laburtuak. Azaldu itzazu, labur, haietako 2. (0,5 puntu zein diren esateagatik eta 0,5 puntu zuzen emandako azalpen bakoitzeko)
2. Defini itzazu *efizientzia ekonomiko* eta *aukera-kostu* kontzeptuak. (0,75 puntu definizio zuzen bakoitzeko)

## **PROBLEMAK**

### ***Ebatzi hiru problema hauetatik bi.***

1. Ekoskan enpresak 200.000 mailu egin ditu 2009an. Horretarako, 5 langile kontratatu ditu, eta haietako bakoitzak urtean 8 orduko 200 lanegun izan ditu. 2010ean 265.000 mailu egin ditu. Horretarako, 2 langile gehiago kontratatu behar izan ditu, bata 8 orduz egunean eta bestea 4 orduz. 2010ean 200 lanegun izan dituzte.

Kalkula ezazu eskulanaren orduko produktibitatea bi urteetan, eta adieraz ezazu, arrazoituz, ea eskulanaren orduko produktibitatea hobetu ala okertu den. (Galderak 2 puntu balio du: 0,75 puntu urte bakoitzeko produktibitatearen kalkulua, eta 0,50 puntu arrazoitzea).

2. Enpresa batean, badakigu 10.000 unitateko salmenta-bolumen bati dagozkion kostu aldakor guztiak 42.000 euro direla eta kostu finkoak 50.000 euro direla. Produktuaren unitate bakoitzaren salmenta-prezioa 10 euro da. Hau eskatzen da:
  - a. Kalkula ezazu itopuntua edo errentagarritasun-atalasea. (0,75 puntu).
  - b. Kalkula ezazu enpresaren mozkina edo galera (0,75 puntu)
  - c. Azaldu ezazu emaitzaren esanahi ekonomikoa. (0,50 puntu).
3. Enpresa baten egoera-balantzearen kontu hauetatik (zenbaki guztiak eurotan daude): bankuak 40.000; epe laburreko maileguak 40.000; lurrak 70.000; hornitzaileak 35.000; makineria 30.000; epe luzeko zorrak 35.000; lehengaiak 5.000; erreserbak 28.000; bezeroak 25.000; kapital soziala 90.000; eraikuntzak 55.000; epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak 12.000; kutxa 3.000; altzariak 12.000.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**ENPRESAREN  
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**ECONOMÍA DE LA  
EMPRESA**

Hau eskatzen da:

**a)** Aurkeztu ezazu egoera-balantzea ondare-masatan ordenatuta (1 puntu):

- *Pasiboaren ondare-elementu bat edo ondare-masa bat aktiboan jartzen baduzu, edo alderantziz, atal honek 0 balioko du.*
- *Ez dagokion masa batean jartzen duzun ondare-elementu bakoitzagatik 0,20 puntu galduko duzu.*
- *Inolako ondare-masan sartzen ez duzun ondare-elementu bakoitzagatik 0,10 puntu galduko duzu.*
- *Atal honetan lortzen den azken puntuazioa ez da inoiz ere negatiboa izango.*

**b)** Kalkula ezazu maniobra-funtsa. (0,5 puntu).

**c)** Azaldu ezazu enpresaren finantza-egoera, maniobra-funtsaren arabera. (0,5 puntu).



## TEST MODUKO GALDERAK

### *Markatu ezazu, biribilduz, erantzun zuzena.*

1. Estatuko aurrekontuetan aurreikusitako gastuak aurreikusitako diru-sarrerak baino handiagoak badira:
  - a) Aurrekontu-defizita dago.
  - b) Aurrekontu-superabita dago.
  - c) Aurrekoetako bat ere ez.
  
2. Enpresa baten tamaina hau da:
  - a) Haren instalazioek hartzen duten tokia.
  - b) Enpresak hornitzen dituen merkatuetarainoko distantzia
  - c) Haren instalazioen produkzio-ahalmena.
  
3. Enpresa mota hauetako zeinetan dute bazkideek erantzukizun mugagabea?
  - a) Sozietate Kooperatiboa.
  - b) Sozietate Anonimoa.
  - c) Sozietate Kolektiboa.
  
4. Giza baliabideen saila osatzen duten pertsonen eginkizuna hau da:
  - a) Enpresak behar dituen pertsonak hautatzea eta trebatzea.
  - b) Finantza- eta inbertsio-iturririk onenak bilatzea.
  - c) Produktua merkaturatzeko lanak egitea.
  
5. Egoera hauetako zeinek islatzen du sistema ekonomiko efiziente bat?
  - a) Lanik gabeko populaziorik ez egotea.
  - b) Ondasun baten unitateren bat gehiago produzitu ahal izatea beste baten produkzioa murriztu gabe.
  - c) Ondasun baten unitate bat gehiago produzitzeko beste baten produkzioa murriztu beharra izatea.



6. Enpresa baten merkatu-kuota zehazteko, hau jakin behar da:
- Enpresa horren errentagarritasuna eta sektorea osatzen duten gainerako enpresena.
  - Enpresa horren salmentak eta sektorea osatzen duten gainerako enpresenak.
  - Enpresa horren errentagarritasuna.
7. Marketing mix-aren barnean, erabaki hauetako zein dagokion produktu-politikari?
- Biltegien kokalekua.
  - Produktuaren ezaugarri teknikoak.
  - Salmenta sustatzeko egiten diren kanpainak.
8. Besteren baliabideak hauek dira:
- Jesapenak.
  - Bezeroen gaineko kobrantza-eskubideak.
  - Legezko erreserba.
9. Porrota hau da:
- Kaudimengabezia-egoera bat, enpresaren ondarea ez baita nahikoa zor guztiei erantzuteko.
  - Likidotasuna falta den egoera bat, enpresak ez baitu baliabiderik bere zorrei aurre egiteko beren epemuga-datetan.
  - Defizit-egoera bat, kontabilitate-liburuak legezko moduan ez eramateagatik.
10. Ratioen analisiak:
- Etorkizuneko mozkinak iragartzeko balio du.
  - Enpresa baten aldi desberdinetako finantza- eta ekonomia-egoerak konparatzeko balio du.
  - Enpresa jakin baten galdu-irabazien kontua besterik ez du kontuan hartzen.



**EBAZPENA: ENPRESAREN EKONOMIA  
(2012ko maiatza)**

**AZALPENAK**

**Iraupena: ordubete.**

Hona hemen azterketaren atalak eta atal bakoitzaren balioa:

- **2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak.** Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balio du.
- **2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak.** Atal honetan, 3 problema aurkeztuko dira. Ikasleak 2 hautatu behar ditu, eta egin. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balio du.
- **TEST MODUKO 10 GALDERA,** hiru edo lau erantzun dituztenak aukeran eta bakarra zuzena; guztira **3 puntu** balio dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balio du; okerreko erantzun bakoitzagatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango. Atal honetako erantzunen batura osoa ez da inoiz negatiboa izango.
- **Galdera teorikoetan eta problemetan, atal bakoitzari dagokion balioa eta zuzentzeko irizpideak** letra etzanez ageri dira letra-tamaina txikiagoan.



## GALDERA TEORIKOAK

1. **Esan ezazu zein diren ekitaldi ekonomiko bakoitzean enpresek aurkeztu behar dituzten urteko kontu laburtuak. Azaldu itzazu, labur, haietako 2.** (0,5 puntu zein diren esateagatik eta 0,5 puntu zuzen emandako azalpen bakoitzeko)

### Erantzuna:

Urteko kontuen egitura, 2008ko urtarrilaz geroztik, hau da:

- **Balantzea.**
- **Galdu-irabazien kontua edo emaitza-kontua.**
- **Ondare garbiaren aldaketen egoera**
- **Urteko txostena**

**Balantzea.** Enpresaren egoera estatikoa adierazten du Aktiboa. Sozietatearen ondasun eta eskubideak.

Pasiboa. Sozietatearen obligazioak.

### **Galdu-irabazien kontua edo emaitza-kontua.**

Ekitaldiaren emaitza adierazten du diru-sarreraren eta gastuen arteko kenduraren bidez. Enpresaren efizientzia neurtzen du.

### **Ondare garbiaren aldaketen egoera**

Hau kontabilitateko egoera-orri berri bat da, urteko kontuak osatzen dituzten gainerako agiriei batu beharrekoa.

Ekitaldian zehar ondareak izan dituen aldaketen egoera adierazten du, eta hau erakusten du:

- I. Ekitaldiaren emaitza.
- II. Erroreen zuzenketa:
- III. Kontabilitate-irizpideren baten aldaketak eragindako aldaketak.
- IV. Balorazio-aldaketak (adibidez, arrazoizko balioaren irizpideari lotutakoak).

### **Urteko txostena**

Urteko txostenaren helburua da balantzeak eta galdu-irabazien kontuak eta garrantzitsuak gerta daitezkeen gainerako datu nahitaezko guztiek emandako informazioa argitzea, zabaltzea eta iruzkintzea.





**2. Defini itzazu *efizientzia ekonomiko* eta *aukera-kostu* kontzeptuak.** (0,75 puntu definizio zuzen bakoitzeko)

**Erantzuna:**

Efizientzia ekonomikoa da produkzio-faktoreetan eta eskura dauden baliabideetan errendimendu ekonomikorik ahal den handiena lortzea. Ekonomia batean produkzio-faktore guztiak eta, gainera, modu efizientean erabilia badaude, esaten da ekonomia hori gehienezko produkzio-potentzialean edo produkzio-aukeren mugan (PAM) dagoela. Egoera horretan, sistema ekonomikoak edo eragile ekonomikoek erabaki behar dute, PAMaren punturik egokiena hautatuz, zer ondasun produzituko diren, hau da, faktoreen esleipen optimoa zehaztuz; nola produzitu ere erabakitzen dute, teknika efizienteak hautatzean eta sistema bakoitzak dituen faktore mugatuak modu egokian esleitzean.

Produkzio-aukeren mugak aukera-kostua islatzen du, hau da, zer aukerari egiten zaion uko eskasia-egoera batean beste ondasun baten produkzioa handitzea erabakitzen denean, baliabide guztiak modu efizientean erabilia egonik. Horregatik, ondasunetako baten produkzioa handitzeak beste batena murriztea dakar; murrizte hori da aukera-kostua.

**PROBLEMAK**

***Ebatzi hiru problema hauetatik bi.***

1. Ekoskan enpresak 200.000 mailu egin ditu 2009an. Horretarako, 5 langile kontratatu ditu, eta haietako bakoitzak urtean 8 orduko 200 lanegun izan ditu. 2010ean 265.000 mailu egin ditu. Horretarako, 2 langile gehiago kontratatu behar izan ditu, bata 8 orduz egunean eta bestea 4 orduz. 2010ean 200 lanegun izan dituzte.

**Kalkula ezazu eskulanaren orduko produktibitatea bi urteetan, eta adieraz ezazu, arrazoituz, ea eskulanaren orduko produktibitatea hobetu ala okertu den.** (Galderak 2 puntu balio du: 0,75 puntu urte bakoitzeko produktibitatearen kalkulua, eta 0,50 puntu arrazoitzea).

**Erantzuna:**

Produktibitateak enpresaren produkzioa eta produkzio-faktoreak erlazionatzen ditu:

$$\text{Produktibitatea} = \frac{\text{Lortutako produkzioa}}{\text{Erabilitako faktoreak}}$$

Produktibitatea (eskulana) 2009 =  $200.000 / (5 \times 200 \times 8) = 25$  mailu orduko.

Produktibitatea (eskulana) 2010 =  $265.000 / (6,5 \times 200 \times 8) = 25,48$  mailu orduko.



Produktibitatea handitu egin da, orduko 0,48 mailu gehiago egiten baitira.

2. Enpresa batean, badakigu 10.000 unitateko salmenta-bolumen bati dagozkion kostu aldakor guztiak 42.000 euro direla eta kostu finkoak 50.000 euro direla. Produktuaren unitate bakoitzaren salmenta-prezioa 10 euro da.

Hau eskatzen da:

- Kalkula ezazu itopuntua edo errentagarritasun-atalasea. (0,75 puntu).
- Kalkula ezazu enpresaren mozkina edo galera. (0,75 puntu).
- Azaldu ezazu emaitzaren esanahi ekonomikoa. (0,50 puntu).

Erantzuna:

- a. Kalkula ezazu itopuntua edo errentagarritasun-atalasea.

$$Q_0 = CF / (p - CVMe)$$

Unitate-kostu aldakorra = Kostu aldakor osoa / unitate kopurua

$$\text{Unitate-kostu aldakorra} = 42.000 / 10.000 = 4,2 \text{ euro.}$$

$$Q = \frac{CF}{p - Cvu} = \frac{50.000}{10 - 4,2} = \frac{50.000}{5,8} = 8.621 \text{ unitate}$$

- b. Kalkula ezazu enpresaren mozkina edo galera.

Enpresak 10.000 unitate produzitzen ditu; beraz, atalase-puntutik gora produzitzen du (8.621). Horrek esan nahi du mozkinak dituela.

Mozkina = Diru-sarrerak – Gastuak.

Diru-sarrerak = Salmenta-prezioa x produktuaren unitate kopurua.

$$\text{Diru-sarrerak} = 10 \times 10.000 = 100.000 \text{ euro.}$$

$$\text{Gastuak} = CF + CV \times \text{unitate kopurua} = 50.000 + 4,2 \times 10.000 = 50.000 + 42.000 = 92.000 \text{ euro.}$$

$$\text{Mozkina} = 100.000 - 92.000 = 8.000 \text{ euro.}$$

- c. Azaldu ezazu emaitzaren esanahi ekonomikoa.

Itopuntuak (produktu-unitatetan edo diru-unitatetan neurtua) adierazten du zer salmentarekin datozen bat enpresaren diru-sarrerak eta gastuak, hau da, mozkina noiz den zero.



3. Enpresa baten egoera-balantzearen kontu hauetatik (zenbaki guztiak eurotan daude): bankuak 40.000; epe laburreko maileguak 30.000; lurrak 70.000; hornitzaileak 35.000; makineria 30.000; epe luzeko zorrak 35.000; lehengaiak 5.000; erreserbak 28.000; bezeroak 25.000; kapital soziala 90.000; eraikuntzak 55.000; pe luzeko hornitzaile-ibilgetu-hornitzaileak 12.000; kutxa 3.000; altzariak 12.000.

Hau eskatzen da:

a) Aurkeztu egoera-balantzea ondare-masatan ordenatuta. (1 puntu):

- Pasiboaren ondare-elementu bat edo ondare-masa bat aktiboan jartzen baduzu, edo alderantziz, atal honek 0 balioko du.
- Ez dagokion masa batean jartzen duzun ondare-elementu bakoitzagatik 0,20 puntu galduko duzu.
- Inolako ondare-masan sartzen ez duzun ondare-elementu bakoitzagatik 0,10 puntu galduko duzu.
- Atal honetan lortzen den azken puntuazioa ez da inoiz ere negatiboa izango.

b) Kalkulatu maniobra-funtsa. (0,5 puntu).

c) Azaldu enpresaren finantza-egoera, maniobra-funtsaren arabera. (0,5 puntu).

**Erantzuna:**

a) Aurkeztu egoera-balantzea ondare-masatan ordenatuta. (1 puntu):

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
<b>Aktibo ez-korrontea</b>	<b>167.000</b>	<b>Ondare garbia</b>	<b>118.000</b>
Lurrak	70.000	Kapital soziala	90.000
Eraikuntzak	55.000	Erreserbak	28.000
Altzariak	12.000		
Makineria	30.000	<b>Pasibo ez-korrontea</b>	<b>47.000</b>
<b>Aktibo korrontea</b>	<b>73.000</b>	Epe luzeko zorrak	35.000
<u>Izakinak</u>	<u>5.000</u>	Epe luzeko ibilgetu-hornitzailea	12.000
Lehengaiak.	5.000		
<u>Merkataritza-zordunak eta ...</u>	<u>25.000</u>	<b>Pasibo korrontea</b>	<b>75.000</b>
Bezeroak	25.000	Epe laburreko maileguak	40.000
<u>Erabilgarria</u>	<u>43.000</u>	Hornitzaileak	35.000
Bankuak	40.000		
Kutxa	3.000		
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>240.000</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>240.000</b>



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**ENPRESAREN  
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**ECONOMÍA DE LA  
EMPRESA**

**b) Kalkulatu maniobra-funtsa. (0,5 puntu)**

Maniobra-funtsak —kapital zirkulatzaille ere izendatzen da— enpresaren finantza-oreka zehazten du.

Maniobra-funtsa = Aktibo zirkulatzaillea – Pasibo zirkulatzaillea

Enpresa honen kasuan, maniobra-funtsa hau da:

Maniobra-funtsa = 73.000 – 75.000 = -2.000 euro

**c) Azaldu enpresaren finantza-egoera, maniobra-funtsaren arabera. (0,5 puntu).**

Aktibo korrontea txikiagoa da pasibo korrontea baino. Maniobra-funtsa negatiboa izateak adierazten du enpresak finantza-desoreka bat duela eta ordainketak eteteko arriskua dagoela. Gerta daiteke enpresarentzat ezinezkoa izatea epe laburreko zorrak itzultzea, zorrak enpresaren baliabide likidoak baino handiagoak baitira. Ondorioz, gerta daiteke enpresak ordainketak eten beharra izatea, hau da, bere konpromisoei aurre ez egitea, eta horrek ondorio judizialak ere izan ditzake.



## TEST MODUKO GALDERAK

**Markatu ezazu, biribilduz, erantzun zuzena.**

1. Estatuko aurrekontuetan aurreikusitako gastuak aurreikusitako diru-sarrerak baino handiagoak badira:
  - a) **Aurrekontu-defizita dago.**
  - b) Aurrekontu-superabita dago.
  - c) Aurrekoetako bat ere ez.
  
2. Enpresa baten tamaina hau da:
  - a) Haren instalazioek hartzen duten tokia.
  - b) Enpresak hornitzen dituen merkatuetarainoko distantzia
  - c) **Haren instalazioen produkzio-ahalmena.**
  
3. Enpresa mota hauetako zeinetan dute bazkideek erantzukizun mugagabea?
  - a) Sozietate Kooperatiboa.
  - b) Sozietate Anonimoa.
  - c) **Sozietate Kolektiboa.**
  
4. Giza baliabideen saila osatzen duten pertsonen eginkizuna hau da:
  - a) **Enpresak behar dituen pertsonak hautatzea eta trebatzea.**
  - b) Finantza- eta inbertsio-iturririk onenak bilatzea.
  - c) Produktua merkaturatzeko lanak egitea.
  
5. Egoera hauetako zeinek islatzen du sistema ekonomiko efiziente bat?
  - a) Lanik gabeko populaziorik ez egotea.
  - b) Ondasun baten unitateren bat gehiago produzitu ahal izatea beste baten produkzioa murriztu gabe.
  - c) **Ondasun baten unitate bat gehiago produzitzeko beste baten produkzioa murriztu beharra izatea.**



- 
6. Enpresa baten merkatu-kuota zehazteko, hau jakin behar da:
- a) Enpresa horren errentagarritasuna eta sektorea osatzen duten gainerako enpresena.
  - b) Enpresa horren salmentak eta sektorea osatzen duten gainerako enpresenak.**
  - c) Enpresa horren errentagarritasuna.
7. Marketing mix-aren barnean, erabaki hauetako zein dagokio produktu-politikari?
- a) Biltegien kokalekua.
  - b) Produktuaren ezaugarri teknikoak.**
  - c) Salmenta sustatzeko egiten diren kanpainak.
8. Besteren baliabideak hauek dira:
- a) Jesapenak.**
  - b) Bezeroen gaineko kobrantza-eskubideak.
  - c) Legezko erreserba.
9. Porrota hau da:
- a) Kaudimengabezia-egoera bat, enpresaren ondarea ez baita nahikoa zor guztiei erantzuteko.**
  - b) Likidotasuna falta izatea, enpresak ez baitu baliabiderik bere zorrei aurre egiteko beren epemuga-datetan.
  - c) Defizit-egoera bat, kontabilitate-liburuak legezko moduan ez eramategatik.
10. Ratioen analisiak:
- a) Etorkizuneko mozkinak iragartzeko balio du.
  - b) Enpresa baten aldi desberdinetako finantza- eta ekonomia-egoerak konparatzeko balio du.**
  - c) Enpresa jakin baten galdu-irabazien kontua besterik ez du kontuan hartzen.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**ENPRESAREN  
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**ECONOMÍA DE LA  
EMPRESA**

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO  
ERLAZIOA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEA</b>
Galdera teorikoak	
1	3.8
2	1.2
Problemak	
1	2.14
2 a) 2 b) 2 c)	2.16
3 a) 3 b) 3 c)	3.3, 3.5, 3.7